Expediente **2025-072149** espedientea

KULTURA ETA GOBERNANTZA SAILA / ÁREA DE CULTURA Y GOBERNANZA

PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

Xedea: Kontratu honen xedea da Udako Liburutegiak 2026 programa kudeatzeko zerbitzua ematea. Programa hori Bilboko plaza publiko batzuetan horretarako prestatutako espazioetan egiten da, zehazki, leku hauetan: Zorrotzan (Azoka plaza), Elorrietan (Elorrieta parkea), Uribarrin (Uribarriko eskoletako zelaia), Errekalden (Errekalde plaza), Miribillan (Gernika lorategia) eta Santutxun (Karmelo plaza).

Egilea:	**Oniritzia:**
ITZIAR FOLLA HERNANDO - 30579181Z Firmado digitalmente por ITZIAR FOLLA HERNANDO - 30579181Z Fecha: 2026.01.07 10:18:14 +01'00'	JOSEBA IÑAKI LOPEZ DE AGUILETA DIAZ - 30553472L Firmado digitalmente por JOSEBA IÑAKI LOPEZ DE AGUILETA DIAZ - 30553472L Fecha: 2026.01.07 10:35:29 +01'00'
LIBURUTEGIETAKO ZUZENDARIORDEA	**KULTURA ETA GOBERNANTZA SAILEKO KULTURAKO ZUZENDARIA**

Data:

2026/01/07

"UDAKO LIBURUTEGIAK 2026" PROGRAMA KUDEATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

I. KAPITULUA. KONTRATUAREN GAIAREN DEFINIZIOA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Udako Liburutegiak 2026 programa kudeatzeko zerbitzua ematea. Programa hori Bilboko plaza publiko batzuetan horretarako prestatutako espazioetan egiten da, zehazki, leku hauetan: Zorrotzan (Azoka plaza), Elorrietan (Elorrieta parkea), Uribarrin (Uribarriko eskoletako zelaia), Errekalden (Errekalde plaza), Miribillan (Gernika lorategia) eta Santutxun (Karmelo plaza). Kokapen bakoitzean, gutxi gorabehera 100 m2-ko azalera okupatzen du (10 m X 10 m).

"Udako Liburutegiak" programa aisialdiko alternatiba bat eta aire zabaleko irakurzaletasuna sustatzeko aukera bat da, Bilboko plaza publikoetan garatuko dena, beren-beregi prestatutako espazioetan. Horretarako, etxola bat jarriko da funts bibliografikoekin, funts horiek irakurri ahal izateko espazio mugatu bat, eta jarduera ludiko osagarriak antolatuko dira; horien artean, gutxienez, formatu txikiko jarduera bat antolatuko da astero (ipuin-kontalariak, pailazoak, magia, etab.) instalazio bakoitzeko.

2. PROGRAMAREN HELBURUAK ETA EZAUGARRIAK

2.1. HELBURU OROKORRAK

Helburuak bi eremutan ezarri dira:

a) <u>Erabiltzaileei dagokienez (familiak, haurrak)</u>

- 14 urtera arteko haurrei dagokienez:
    - Sozializazioa, bizikidetza eta errespetua sustatzea.
    - Irakurtzeko ohitura eta irakurzaletasuna bultzatzea, ipuinetara, liburuetara, aldizkarietara eta abarretara hurbilduz eta irakurketa sustatzeko jarduera-programa bat garatuz.
    - Oporraldian programa ludiko eta ireki bat eskaintzea.
    - Aisialdiko kultura ez-kontsumistan heztea.
    - Eguneroko eremuetan euskararen erabilera indartzea.
- Familiekin:
    - Familiaren aisialdi-eskaintza handitzen laguntzea.
    - Belaunaldien arteko aisialdirako gune bateratua eskaintzea.

b) <u>Antolatzaileari dagokionez, hau da, Udal Liburutegien Sareari dagokionez</u>

- Sareko liburutegien erabilera sustatzea, haien baliabide eta zerbitzuak zabalduz.
- Irakurzaletasuna sustatzea herritarren artean, bereziki haurren artean, irakurle aktibo bihur daitezen, eta, ondorioz, liburutegi publikoen erabiltzaile potentzial izan daitezen.

2.2. EZAUGARRIAK

a) Langileak:

"Udako Liburutegiak" programa begirale talde batek dinamizatuko du. Begirale horiek harreman ludikoak eta hezigarriak ezarriko dituzte hartzaileekin.

b) Egutegia eta ordutegia

Egutegia honako hau izango da:

- 3 kokalekutan: Zorrotzan (Azoka plaza), Elorrietan (Elorrieta plaza) eta Uribarrin (Uribarriko eskoletako zelaia).
  - ✓ ekainaren 29tik uztailaren 17ra, biak barne.
- 3 kokalekutan: Errekalden (Errekalde plaza), Miribillan (Gernikako lorategia) eta Santutxun (Karmelo plaza).
  - ✓ uztailaren 20tik abuztuaren 7ra, biak barne.

Ordutegia hau izango da kasu bietan: astelehenetik barikura, 111:30etatik 13:30ra eta 17:00etatik 20:00etara.

Eguraldi txarra egonez gero, arduraduna liburutegiko koordinatzailearekin harremanetan jarriko da kasu bakoitzean hartu beharreko erabakia adosteko, itxi egingo den ala ez erabakitzeko.

c) Hartzaileak

"Udako Liburutegiak" programa, oro har, aire zabalean irakurtzeko interesa duten guztiei zuzenduta dago, eta, bereziki, 14 urte arteko haurrei.

d) Zerbitzuaren deskribapena

Enpresa esleipendunak bere gain hartuko ditu programazio-, kudeaketa- eta dinamizazio-lan hauek:

- Enpresa esleipendunak proiektua aurkeztuko du ekaineko lehen asteetan. Proiektuak honako hauek jaso beharko ditu:
  - Programaren helburu orokorrak eta egin beharreko jardueren helburu espezifikoak.
  - Hartzaileak.
  - Jarduerak egiteko erabilitako metodologia.
  - Jardueren eta tailerren programa zehatza.
  - Espazioak plazetan nola antolatuko diren.
  - Proiektuari atxikitako arduradunaren eta monitorearen (bat edo gehiago) zerrenda.
  - Erabiliko diren baliabide materialak.
  - Jarraipen- eta ebaluazio- sistema

Programaren koordinatzaileak -Bidebarrietako liburutegikoa- ahalmena izango du enpresa esleipendunak proposatutako jarduerak aldatzeko edo haien ordez egokiagotzat jotzen dituen beste batzuk jartzeko.

- Gutxienez lau orduko prestakuntza-saio bat emango die kontratuari adskribatutako pertsonei gai hauei buruz: liburutegi-zerbitzua, Bilboko Udal Liburutegien Sarea, liburutegiko katalogoaren erabilera eta liburutegietako funts bibliografikoekin eta etxoletan izango duten materialarekin ohitzea. Prestakuntza hori jarduera hasi aurretik egingo da.

- Udako Liburutegiak sustatzeko kartelak jarriko ditu liburutegiok jarriko diren auzoetan, zehazki 15 kartel auzo bakoitzean.

- Instalazio bakoitza behar bezala seinaleztatuko du eta erabiltzaileei jakinaraziko die, bi hizkuntza ofizialetan:
    - proiektuaren espazioak eta horietako bakoitza erabiltzeko adin egokia,
    - eguneroko jarduerari buruzko informazio-gunea

- Liburutegietako funts bibliografikoak eramango ditu etxoletara eta programa amaitzean funtsak liburutegietara itzuliko ditu.

- Programa gauzatu bitartean egiten diren liburutegiko bazkide-eskabideak Bidebarrietako Liburutegira bidaliko ditu. Bi egun geroago, Bidebarrietako liburutegi-txartelak jaso eta eskatzaileei eramango dizkie.

- Programaren koordinatzaileari (Bidebarrietako liburutegikoa da), astero, bideo labur bat eta kokaleku bakoitzeko jarduera garrantzitsuenen sei argazki emango dizkio, .jpg formatuan, udalaren webgunean eta udalaren sare sozialetan sartzeko.

- Egunero jasoko ditu bertaratzeari eta erabilerari buruzko estatistikak, eta astero jakinaraziko dizkio programaren koordinatzaileari, Bidebarrietako Liburutegian.
    - Asistentzia, helduak eta haurrak, etxolako
    - Asistentzia animazio-jardueretan
    - Liburuak/aldizkariak/egunkariak lekuan bertan irakurtzea, jokoak erabiltzea
    - Liburuen mailegua -helduenak eta haurrenak- etxez etxe.

- Hesiak, mahaiak eta bestelako materiala jarri eta kenduko du egunero, jendearentzako ordutegia betetzen dela ziurtatuz.

- Programaren koordinatzaileari (Bidebarrietako liburutegikoa) programaren memoria emango dio programa amaitzean (nolanahi ere, 2025eko irailaren 7a baino lehen), formatu elektronikoan eta inprimatuta.

e) <u>Kontratua gauzatzeko erabiliko diren baliabide materialak</u>

Enpresa esleipendunak behar bezala garatzeko behar diren azpiegitura eta baliabide materialak jarri beharko ditu programa gauzatzeko. Gutxienez, honako hauek:

<u>Kokaleku bakoitzeko azpiegitura</u>

- Zurezko etxola bat, honako ezaugarri hauek dituena:
- Izei-egur naturaleko hormak
- Metalezko egitura
- Estalkia: 18 m-ko izei-tronadura eta txapazko kanpo-estalkia, isolamendu termikoa duena.
- Motelgailuak, 4 leihoak errazago irekitzeko, eta larakoak, leihoak barrualdetik ixteko.
- Sarraila giltzaduna sarrerako atean.
- Kanpoko tamaina: 3 x 2 x 3 m, gutxi gorabehera.
- Zorua 30 mm-ko lodierako taula kontratxapatu hidrofugoz osatuta, eta gomazko xaflez estalita.
- L formako mostradore bat, leiho nagusien azpian.
- 3 apalategi barrualdean

Egiturak eta muntaketak dagozkien segurtasun-ziurtagiriak izan beharko dituzte.

Enpresa esleipenduna arduratuko da etxola ipintzeaz eta programa amaitzean, hura erretiratzeaz. Kontratuaren arabera, erabiltzaileei prestazioak emateko epea amaitu eta, gehienez ere, 48 orduko epean kendu behar da egitura.

<u>Kokaleku bakoitzeko altzariak</u>:

- Su-itzalgailuak
- Irakurtzeko espazioa: 24 aulki eta 8 mahai helduentzako.
- Irakurtzeko espazioa: 10 aulki eta 4 mahai haurrentzako.
- 10 eguzkitako eta 5 hamaka
- Haurrei jarduerak azaltzeko panelak.
- Haurrentzako motiboak dituzten **8** dekorazio-panel
- Espazioak mugatzeko koloretako hesiak.
- Tailerretako 2 mahai, plastiko urdinezko forruarekin, liburuetarako apalategiak,
- 3 orga eta 4 edukiontzi liburuetarako
- Egunkari eta aldizkarien erakustoki bat
- Tailerretako materialetarako 2 apalategi.
- Saskiak, haurrentzako ipuinekin, irakurketa-eremuan lurrean jartzeko.
- 15 mahai-jolas (partxisa, antzara-jokoa, tribiala, txerto-burua, birusa, piko-pikoa... edo antzekoak)
- Astoa eta kortxoa, asteko programazioa eta funtzionamendu-araudia ipintzeko.
- Iradokizunen postontzia
- Telefono mugikor 1, monitoreak katalogoan sartu ahal izan daitezen internet bidez.

<u>Material suntsikorra</u>:

- Eguneroko jarduera zehatzak egiteko behar beste material (kartoi meheak, boligrafoak eta koloretako arkatzak, goma elastikoak, etab.); eta aldian-aldian berritu beharko dira, hondatu ahala.
- Langileentzako arropa: 2 kamiseta, praka labur 1 eta jertse 1 pertsonako.
- Prentsa-aleak. Kokaleku bakoitzean, honako egunkari hauek jarriko dira erabiltzaileen eskura egunero:
    - EL CORREO: ale bat

- DEIA: ale bat
- GARA: ale bat
- BERRIA: ale bat
- Kirol-egunkari baten ale bat

3. ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK

3.1. PREZIOA ORDAINTZEA:

Ordainketa partzial bi egingo dira, ondoz ondoko faseak entregatu eta jaso ondoren. Enpresak zenbateko bereko faktura bi egingo ditu, kontratuaren exekuzio-fase hauetan:

A) 1. FASEA: Programa Zorrotzan, Elorrietan eta Uribarrin gauzatu ondoren, lehenengo faktura aurkeztuko du.

B) 2. FASEA: Bigarren faktura aurkeztuko du Errekalden, Miribillan, Santutxun, eta azken memoriaren aurkezpena egin ondoren.

Bilboko Udal Liburutegien Sarearen (BULS) irudi korporatiboa erabiliko da beti, liburutegiko programaren koordinatzailearen jarraibideen arabera. Beste elementu batzuk erabiltzeko, pertsona horren berariazko eta idatzizko baimena beharko da.

Adjudikaziodun enpresak honako hauek egin beharko ditu:

- Erabiltzen den espazio fisikoan estrategikoki jarri beharko ditu BULS identifikatzeko erakunde-irudiaren elementuak.
- Jardueretako monitore guztiak BULSen logotipoa izango duen kamiseta jantziko dute eta identifikazio-txartel bat ere izango dute. Txartel horretan izena eta monitorea ala koordinatzailea den jasoko da.

Prentsaurrekoetan, dossierretan eta gainerako ekitaldietan, udalaren irudi korporatiboa erabiliko da, Komunikazioko Bulegoaren jarraibideekin bat etorriz.

Beste edozein irudi korporatibo sartzeko, beharrezkoa izango da Bilboko Udalak adostasuna ematea, berariaz eta idatziz.

4. KULTURA ETA GOBERNANTZA SAILAK EGIN BEHARREKO ZEREGINAK

Zehazki, Bilboko Udaleko Liburutegi Zerbitzuak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Instalazio bakoitzean behar diren funts bibliografikoa eta aldizkariak ematea.
- Irudi instituzionaleko elementuak (BULS identifikazioa) ematea, horretarako prestatutako guneetan eta langileek euren jantzietan jar ditzaten.
- Eskuko programak eta, hala bada, kartelak ematea, enpresa esleipendunak programa zabaltzeko erabili ahal izan ditzan.
- Roll-up bat ematea kokaleku bakoitzari, Liburutegi Sarearen markarekin.
- Eredu estandarizatu elebiduna ematea, irudian agertzen den pertsonak (edo, hala badagokio, adingabearen arduradunak) irudiak hartzeko eta/edo komunikabideetan edo udal espazio birtualetan zabaltzeko baimena eman dezan.
- Programaren azken jarraipena eta koordinazioa egitea.

- Behar diren kudeaketak egitea espazio publikoa erabiltzeko behar diren baimenak lortzeko.

5. KONTRATUA GAUZATZEKO ESLEITU BEHARREKO GIZA TALDEA

Enpresa adjudikaziodunak behar adina langile kualifikatu izan beharko ditu kontratu hau betetzeko. Betiere, lantalde bat eduki beharko du, behar bezala koordinatuta, eman beharreko zerbitzuak denbora eta forma egokietan betetzeko gaitasuna duena.

Sail honek beharrezkotzat jo du enpresa adjudikaziodunak eginkizun hauek beteko dituzten langileak izatea:

- Proiektuaren koordinatzailearen/arduradunaren eginkizunak
- Aisialdiko begiralearen eginkizunak

Proiektuaren koordinatzailearen/arduradunaren eginkizunak hauek izango dira: jardueraren plangintza, koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa. Kalkulatzen da astean gutxienez 7 ordu ez-presentzial eta 2 ordu presentzial beharko lituzkeela. Nolanahi ere, uneoro aurkitzeko moduan egon beharko du, telefono mugikorrarekin, aldi osoan.

Aisialdiko 6 monitoreetatik, hiru instalazioetako bakoitzean bina egongo dira (lehenik, Zorrotza, Elorrieta eta Uribarriko instalazioetan, eta, ondoren, Errekalde, Miribilla eta Santutxuko instalazioetan). Bi monitore horietatik batek mailegu-zerbitzuaren irakurketa- eta kontrol-jarduerak zaindu eta dinamizatuko ditu, eta besteak eguneroko jarduera osagarriak dinamizatuko ditu (tailerrak, jolasak).

Proiektua egikaritzeari atxikitako langile guztiek egiaztatu beharko dute ez dutela epai irmo bidez kondenatu sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik; horretarako, Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatibo bat aurkeztu beharko dute, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema Aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearen 13. artikuluaren 5. apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz.

Era berean, proiektuaren arduradunak eta kontratua gauzatzeko enpresa adjudikaziodunak atxiki beharko dituen monitoreek profil profesional hau bete beharko dute:

Erantzukizuna kontratuan (funtzioak)	Titulazioa/ Prestakuntza akademikoa	Gutxieneko esperientzia	Hizkuntzak
Proiektuaren koordinatzailea	MECES 2. mailako unibertsitate-titulua gizarte- eta hezkuntza-arloko, giza zientzietako, psikologiako, pedagogiako eta antzekoetako titulazioetan.	Urtebeteko esperientzia haurren programak edo zerbitzuak kudeatzen (ludotekak, koloniak, eskolaz kanpoko jarduerak, haurrentzako hezkuntza-programak)	Euskararen 2HE/2B
Aisialdiko 6 monitore*	Haurren eta gazteen aisialdiko begirale-diploma	Gutxienez 72 orduko esperientzia monitore gisa	Euskararen 2HE/2B

* Aisialdiko begiraleek 18 urte izan beharko dituzte gutxienez.

Esleitutako taldeak 7 pertsona izan beharko ditu gutxienez: 6 begirale eta koordinatzaile bat. Beraz, begiraleek ezin izango dute inola ere koordinatzaile gisa jardun.

Eskaintzak baloratu aurretik egiaztatu beharko da betekizun horiek betetzen ote diren.

Esleitutako taldea kontratuaren gauzatze-epe osoan mantendu beharko da:

- Eskaintzan zehaztutako balioen arabera eskainitako langileen ezagutza teknikoen maila ez badator bat lanak gauzatzean benetan erakutsitako ezagutzekin, hori zuzentzeko neurriak hartzeko errekerimendua egingo zaio adjudikaziodunari.

- Lantaldeko pertsona baten produktibitatea eta lanen kalitatea baloratzen direnean desegokitzat jotzen badira, edo zerbitzua behar bezala gauzatzeko gorabeherarik badago, horren berri emango zaio adjudikaziodunari, zuzentzeko neurriak har ditzan.

- Enpresa adjudikaziodunak taldeko pertsona bat (eskaintzan izendatutakoa) aldatzea proposatzen badu, 15 egun lehenago komunikatu beharko du idatziz. Egindako aldaketak azaldu beharko ditu, eta ordezkapenerako jarriko duen profil baliokideko datuak erantsiko ditu.

Kontratistak kontratua gauzatzeko jarritako giza baliabideak adjudikaziodunaren zuzendaritza- eta antolaketa-boterearen mende egongo dira, legez ezarritako eremu eta arlo guztietan; adjudikazioduna izango da, beraz, langile horien arduradun bakarra, eta horregatik ez dute inolako lotura juridiko-laboralik izango Bilboko Udalarekin. Hori guztia, dagokion kontratuaren betearazpenaren kontrola alde batera utzita.

Funtsezko kontratu-betebehartzat joko da klausula honetan ezarritakoa eta giza taldeari buruz eskaintzan hartutako konpromisoak betetzea. Kontratistak betetzen ez baditu, kontratua suntsiarazteko kausa izan ahal da.

II. KAPITULUA. KONTRATUA GAUZATZEA

A. ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK

1. OROKORRAK:

Enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira kontratatutako zerbitzuak emateko egin behar diren gastu guztiak: kontratuak prestatu eta formalizatzeko izapideak, materialak eta instalazioak, tresnak, lan-eskua, Gizarte Segurantza, tributazioa, mota guztietako erantzukizunak eta aseguruak, enpresari dagozkion gainerako kargak eta betebeharrak, eta kontratutik edo lizitazioan parte hartzetik sortzen diren beste guztiak. Betebehar horiek guztiak bereganatuko ditu behin betiko adjudikazioa egiten zaion unetik aurrera.

Enpresa adjudikaziodunak lortu behar ditu, bere kontura, prestazioa emateko behar diren baimen eta lizentzia guztiak, ofizialak nahiz partikularrak.

Enpresa adjudikaziodunak lortu behar ditu, bere kontura, bere eskaintzan aipatzen dituen kalitate-ziurtagiriak eta gainerako egiaztagiriak.

Era berean, egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule izango dira, baita kontratua gauzatzean gertatzen diren ez-egiteek, akatsek, metodo desegokiek edo ondorio okerrek Bilboko Udalarentzat edo hirugarren pertsonentzat izan ditzaketen ondorioen erantzule ere, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera; lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

Kontratua behar bezala betetzeko beharrezkoak diren zerbitzuak ere emango ditu enpresa adjudikaziodunak, ordainketa gehigarrirako eskubiderik gabe; esaterako, laneko bileretara eta bilera informatiboetara joatea eta abar. Betebehar horrek berme-aldia amaitu arte iraungo du.

2.- LAN-ARLOKOAK:

Enpresa esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren, eta laneko segurtasunaren eta higienearen alorretan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Lan-harreman horretatik eratorritako gastuak (Gizarte Segurantza, PFEZ atxikipenak, dietak...) ezin izango zaizkio Bilboko Udalari jasanarazi.

Bilboko Udalak ez du erantzukizun zuzenik, solidariorik edo subsidiariorik izango enpresa adjudikaziodunaren lan-betebeharrak betetzeari dagokionez, ez eta, hala badagokio, lan-harremanak amaitzetik erator daitezkeenak betetzeari dagokionez ere, ez kontratu hau indarrean dagoen bitartean, ezta amaitu ondoren ere.

Bilboko Udalak ez du inolako antolakuntza- edo zuzendaritza-ahalmenik izango enpresa adjudikaziodunarentzat lan egiten duten langileei dagokienez. Era berean, ez du inolako harreman juridiko laboralik, zibilik edo administratiborik izango langile horiekin.

Kontratua betetzeko ardura duten langileek publikoarentzako ordutegia betetzeko konpromisoa hartu beharko dute, bai eta programaren kudeaketa orokorrerako beharrezkoak diren lanak egiteko konpromisoa ere. Enpresa adjudikazioduneko langileak adjudikaziodunaren ustez egin behar diren prestakuntza- edo koordinazio-saioetara joateak ez du kostu gehigarririk izango kontratuan, eta ez du jarduerak jendearentzat ixtea ekarriko.

3.- ARDURADUNA IZENDATZEA:

Adjudikaziodunek arduradun bat izendatu beharko du, Bilboko Udalaren aurrean ordezkatu dezan zerbitzuari dagokion guztian. Pertsona hori izango da adjudikaziodunarekin kontratatuko den proiektuaren arduraduna eta ahalmen nahikoa izango du enpresa adjudikaziodunaren izenean erabaki egokiak hartzeko. Erabaki horietan ez du eraginik izango erabakitzeko gaitasun ezak, izan legezkoa izan formala. Pertsona hori izango da kontratuaren inguruko kontu guztietarako solaskide onargarri bakarra.

Arduradun horrek prestasun osoko erregimenean jardungo du, eta, beraz, ohiko lan-ordutegitik kanpo kontratatutako beharrak bete beharko ditu, baita jaiegunetan eta asteburuetan ere, eta telefono mugikorraren bidez edozein unetan berarekin harremanetan jartzeko aukera izan beharko du.

4.LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Nolanahi ere, lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean den legeriari dagozkion betebehar guztiak bete beharko dira, behar bezala aplikatuz araudia, hitzarmen honen ondorioz gauzatzen den jarduerari dagozkion lan-arriskuen prebentziorako indarrean dagoena, eta hartarako ezarritako legezko tresnak baliatuz; hala, enpresa adjudikaziodunena da, ez beste inorena, izango da betebehar horiek betetzeko erantzukizuna, eta, beraz, horiek ez betetzeak edo behar bezala ez betetzeak ekartzen dituen ondorioen erantzukizuna ere bai.

5.KONFIDENTZIALTASUNA

Enpresa adjudikaziodunek kontratatu diren zerbitzuei buruz jakiten dituzten datu guztiak konfidentzialtzat joko dira eta datu horien identitatea eta sekretua gorde beharko dituzte. Ondorioz, ezin izango dute informazio hori erabili, ezta hirugarrenei eman ere, Udalaren idatzizko baimenik gabe.

Adjudikaziodunek Bilboko Udalari eta eragindako pertsonei kalte-ordaina eman beharko diete, isiltasun profesionalaren betebeharra urratzeak eragindako kalte-galerengatik.

6.DATU PERTSONALAK

Enpresa adjudikaziodunek, hala badagokio, tratamendu automatizatua behar duten datu pertsonalak erabili behar badituzte kontratua betetzeko, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta xedapen horiek garatzen dituzten arauetan xedatutakoa bete beharko dute.

Enpresa adjudikaziodunak kontratua dela-eta lortzen dituen datu pertsonal automatizatuak ezin izango ditu aplikatu edo erabili kontratuan agertzen ez den beste helburu baterako.

Behin kontratu-prestazioa betetakoan, datu pertsonal tratatuak Bilboko Udalari entregatuko zaizkio. Enpresa adjudikaziodunak bereak suntsitu beharko ditu, salbu eta Bilboko Udalaren idatzizko baimena badago, gerora beste zerbitzu batzuk emateko aukera dagoelako; kasu horretan, segurtasun-baldintza egokiekin gorde ahal izango dira bost urtez.

7.ARGAZKIAK ETA IRUDIAK:

Enpresa adjudikaziodunak egindako argazkiak eta/edo irudiak libreki erabili ahal izango ditu Bilboko Udalak, baldin eta adjudikaziodunak irudi horiek kontratuaren xede diren komunikazio-egintzetan txertatzen baditu. Inola ere ezin izango da erabili irudi, argazki edo diseinurik, baldin eta horiek erabiltzeagatik legezko erantzukizuna badago.

Irudiak hartzean, irudi pertsonalerako eskubidea errespetatu beharko da, eta, hortaz, irudian agertzen den pertsonaren edo arduradunaren baimena jaso beharko da, adingabea bada. Horretarako (baimena sinatu behar dute, bai helduek, bai adingabeek), liburutegian programa koordinatzen duen pertsonak eredu estandarizatu elebidun bat jarriko du eskura. Eredu horretan, sinatzaileak baimena emango du irudiak hartzeko eta irudi horiek udaleko hedabideetan edo gune birtualetan zabaltzeko.

8.EUSKARA:

Gaztelania eta euskara berdintasun osoz erabili beharko dira kontratuaren xede den jarduerari lotutako esku-hartze publikoetan. Beraz, adjudikaziodunak euskara nahikoa dakiten pertsonak izan beharko ditu prentsaurrekoetan parte hartzeko.

Liburutegian programaren koordinatzaileari entregatu beharreko azterlan, txosten, proiektu eta bestelakoak bi hizkuntza ofizialetan idatzita egongo dira.

Programako jarduerak EAEko bi hizkuntza ofizialetan egingo dira. Era berean, ahalegina egingo da hizkuntza-parekotasuna lortzeko jarduera garatzeko erabiliko diren materialetan.

9.HIZKUNTZA INKLUSIBOA ETA KULTURA-ANIZTASUNA:

Enpresa adjudikaziodunak berdintasunezko hizkera erabiliko du bere komunikazioetan, Berdintasuneko eta Jaietako Sailak ezarritako irizpideak betez.

Enpresak egiten duen lanak, halaber, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen lagundu beharko du, eta, bereziki, hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta txertatuko dituen irudien edukia zaindu beharko ditu. Halaber, gizarte-kohesioa indartzen lagundu beharko du, herritarren aniztasuna eta kultura-aniztasuna kontuan hartuta.

10.JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK:

Kontratuko lanetatik eratortzen diren jabetza intelektualeko eskubide guztiak eta “copyright” eskubideak Bilboko Udalarenak izango dira oso-osorik. Hori jendaurrean agerrarazteko beharrezkoa baldin bada, agiri egokia egin beharko dute alderdiek.

Adjudikazioduna behartuta dago hirugarrenek jabetza intelektualeko eskubideen inguruan egin ditzaketen erreklamazio, demanda edo auzi-uzi guztiei erantzutera, eta Administrazioa edozein erantzukizunetatik salbuetsiko du.

11. LARRIALDIAK:

Enpresaren larrialdiengatik edo antzeko arrazoiengatik enpresa adjudikaziodunak uste badu ezin duela zerbitzua egin ezarrita dauden betekizunak betez, Bilboko Udalari jakinarazi beharko dio berehala, neurri egokiak har ditzan, eragindako eragozpenak saihesteko edo murrizteko. Neurri horiek sortzen dituzten gastuak adjudikaziodun enpresak ordainduko ditu, hargatik eragotzi gabe dagozkion zehapenak eta deskontuak.

Kasu horietakoren batean adjudikaziodun enpresak neurri egokiak hartzen baldin baditu kalteak konpentsatzeko, zehapena ez da bidezkoa izango, eta egin gabeko lanen zenbatekoa baino ez da deskontatuko.